OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO HAURRENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUA EMATEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Oiartzungo Udalak bere gazteria politikaren barruan Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzuaren **(HBAZ)** kudeaketa esleitzeko lehiaketaren baldintza teknikoak zehaztea.

Zehazki, ondoko egitasmoak aipatzen dira: familia-eremua, haur-txokoa eta udaleku irekiak. Zerbitzuak haurren beharretara egokitzen dira urtean zehar, egitasmo horiek direlarik erantzuna ematen dutenak, besteak beste, behar horiei.

Kontratuaren exekuzioa zerbitzuaren diseinu, plangintza, emate eta antolaketa lanetan antolatzen da, plegu honetan ezarritakoarekin bat etorrita Udaleko Gazteria eta Kirola Sailaren zuzendaritzapean.

2. KONTRATUAREN INDARRALDIA

Agiri honetan aipatzen den prestazioa burutzeko epea urtebetekoa izango da. Era berean, kontratuaren hiru luzapen aurreikusten dira, bakoitza urtebetekoa.

3. JUSTIFIKAZIOA. GAZTERIA POLITIKA

3.1. Gazteria Politika

Oiartzungo Udalaren Gazteria Politikaren xede nagusia da herriko haurrei, nerabeei eta gazteei haien haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea, etapa bakoitzak dituen bi alderditan:

- ⇧ Berezko balioa eta esanahia duen bizi-etapa gisa.
- ⇧ Heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen bizi-etapa gisa.

3.2. Gaztematika. Gipuzkoako haurren eta Gazteen sustapenerako sistema

Oiartzungo Udalaren Gazteria Politika Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako Politika, esan bezala, Gaztematikaren barruan kokatzen da.

Gaztematika, Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren arabera, Gazteria politika bultzatzeko tresna nagusiak bizi-etapa bakoitzari zuzendutako zerbitzuak dira:

- ⇧ Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzua

OIARTZUNGO UDALA

- ⇧ Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua
- ⇧ Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzua

Zerbitzu horietatik lehenengo zerbitzua emateko helburua du baldintza plegu honek: Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzua –**HBAZ** aurrerantzean-.

HBAZ zerbitzuarekin, aisialdi eskaintza egonkorra, etengabea eta koherentea zuzentzen zaie haurrei, euren garapen osoa, gozamena eta autonomia pertsonala bilatzen dituena.

Gaztematikak **HBAZ** zerbitzua zehazteko oinarrizko dokumentua landu eta argitaratu ditu eta horiek izango dira baldintza plegu honen erreferentzia teoriko orokorra.

Zerbitzuan garatutako jarduera guztietan funtsezkotzat hartzen ditugu hiru zehar lerro hauek:

1. Euskara
2. Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna
3. Inklusioa

HBAZ sei jarduera-arlo zabal hauek eskaintzen zaizkie hartzaileei:

1. Informazioa: Informazioa funtsezko tresna da, hartzaileei arlo edo sistema guztietan (kultura, osasuna, gizarte zerbitzuak,...) beren eskura dituzten baliabide eta aukerak baliatzen laguntzeko. Informazio erabilgarria, eraginkorra, esanguratsua eta antolatua izango da, beti ere, beraien interesen gaiei buruzkoa.
2. Orientazioa: Orientazioak haur laguntza ematen die, dituzten aukerak ezagutu ditzaten, hautabideak identifika ditzaten eta beraien bizitzako hainbat alderdiri buruzko erabakiak har ditzaten. Zenbaitetan, pertsona horren beharrari hobeto erantzungo dion beste eragile edo instantzia batera bideratuko da.
3. Bidelaguntza: Bidelaguntza, nolabaiteko egonkortasuna eta jarraitutasuna duen laguntza eta jarraipen harreman bat da, haurrek, nerabeek eta gazteek erabakiak hartzeko, baliabideak erabiltzeko, jarduerak egiteko, aukerak bereizteko eta loturak eratzeko helburua duena
4. Aisia hezitzailea: Aisi hezitzailea haurren eta nerabeen astialdian egindako esku hartze bat da, jolasekoa eta atsegina izanik, laguntza harreman baten bidez bizitzarako gaitasunak, jarrerak eta balioak hartzea edo garatzea lortzen duena.
5. Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak: Haurrek eta nerabeek zerbitzuei eta beren bizitzako beste arlo nabarmen batzuei buruz iritziak adierazteko, proposamenak helarazteko, erabakiak hartzeko, ardurak hartzeko, bakarrik edo besterekin batera kudeatzeko, eta neurri batean kontrola egiteko benetako aukerak sortzea eta dinamizatzea dakar.
6. Sorkuntzarako eta produkziorako bideak: Haurrek eta nerabeek beren sortze eta ekoizte ahalmena indartu eta bideratuko dieten jarduera eta proiektuak garatu eta ikusarazteko benetako aukerak sortzeaz eta dinamizatzeaz ari gara.

OIARTZUNGO UDALA

4. ZERBITZUAREN XEDEA ETA EZAUGARRIAK

Oiartzungo haurrentzako zerbitzua, publikoa da, herriko haur guztientzako erreferente izan nahi duen gizarte hezkuntzako udal-zerbitzua.

Haurrentzako zerbitzuak koherentzia eman nahi dizkie toki-eremuko haurrentzako proposamen guztiei. Haur-izaera errespetatzen duen ikuspegi batetik, haurrentzako zerbitzuak haurren egungo errealitatea hobeto ezagutzea eta haien eratzea ahalbidetuko ditu.

Zehazki, zerbitzuak ondoko eskaintza bilduko ditu:

- ⇧ Familia-eremua
- ⇧ Haur-txokoa
- ⇧ Udaleku irekiak

a) Familia-eremua:

Oiartzungo Udaleko Gazteria eta Kirola Sailaren menpe dagoen 0-5 urte bitarteko haurrei eta beraien gurasoei zuzendutako zerbitzua da, non ludikotasuna ardatz izanik, garrantzi berezia ematen zaio loturak sortu eta sendotzeari, bai hurbileko helduekin harreman ludikoa izateari ere.

Eremu hau, taldean oinarritzen da, honako lau osagai hauek dituelarik:

- ⇧ Guraso desberdinen arteko elkarreragina partekatzea.
- ⇧ Haurren arteko elkarreragina ahalbidetzea beren helduen aurrean.
- ⇧ Haurrekin aritzen diren profesionalen presentzia guraso-lanak egitearen esperientzia eta zalantzak partekatzeko.
- ⇧ Gizarte-loturak eta komunitate-laguntzako sareak ahalbidetzea.

b) Haur-txokoa:

Oiartzungo Udaleko Gazteria eta Kirola Sailaren menpe dagoen 6-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako zerbitzua da, non parte hartzen duten haurren eskura joko eta jostailuez hornituriko espazio hezitzaile bat eskaintzen den. Proiektu Heziketa baten laguntzaz eta denbora librean ekintza ludikoen bitartez epe ertainera haur horien garapen sozial, afektibo eta kognitiboa faboratzea helburu du, beste haur, guraso eta hezitzaileekin dituzten harremanak landuz.

c) Udaleku irekiak:

3 eta 12 urte bitarteko (biak barne) haurren udako aisia antolatu, programa osatu eta anitz baten bidez, hauen garapen sorgarria eta artistikoa landu aisi eremu batean.

4.1. Zerbitzuaren hartzaileak

a) **Familia-eremua:** 0-5 urte (biak barne) bitarteko haurrak dituzten familiei zuzenduta dago.

b) **Haur-txokoa**: 6-12 urte (biak barne) bitarteko haurrei zuzendua dago.

c) **Udaleku irekiak**: 3 eta 12 urte bitarteko (biak barne) oiartzuar eta bertan ikasten duten haurrentzat zuzendutako uztaileko aisialdi eskaintza da.

Adin tarte hauetan, zerbitzu bakoitzean egokitzat jotzen diren txandak edo taldeak proposatu ahalko dira, beti ere, Udalarekin aldez aurretik adostuta.

Gainera, zuzenean zerbitzuaren erabiltzaile izan ez arren, zeharkako hartzailetzat joko dira haurren heziketaren ardura konpartitzen duten helduak ere (gurasoak, hezitzaileak, irakasleak, etab.).

Zerbitzuko hartzaileek, finkatutako helburuei eta eskainitako programari jarraituz, eskubidea dute zerbitzuak behar bezala eta modu eraginkorrean jasotzeko.

Zerbitzuko hartzaileek beren eskura jarritako ekipamendua eta materiala helburuaren arabera errespetatu eta erabiltzeko betebeharra dute.

5. ZERBITZUAREN HELBURUAK

5.1. Helburu nagusiak

Hauek dira haurrentzako zerbitzuaren helburu nagusiak:

- ⇧ Haurtzaroan eta herriko 0-12 urte bitarteko haurren zerbitzura dagoen egitura erreferentziala izatea, hurbilekoa, gertukoa eta jarraitua.
- ⇧ Haurrak eskubide osoko herritar eta eskubideen subjektu direla aitortzea, beraien izaera eta nortasuna zein testuingurutan eratzen den kontuan izanik.
- ⇧ Esku-hartzeko espazio desberdinak, eragina dutenak eta haurren beharretara egokituak sortzea, osagarriak direnak eta beste zerbitzuetan eskaintzen dena konpentsatzen dutenak.
- ⇧ Nesken eta mutilen arteko aukera- berdintasuna bermatzea.
- ⇧ Aisialdi eredu kontsumistari aukerak eskaintzea.
- ⇧ Balioen heziketa sustatzea: errespetua, bizikidetza, elkartasuna, aniztasuna, parekidetasuna, sexuen arteko berdintasuna.
- ⇧ Parte hartzeko kultura aktiboa eta arduratsua sortu eta hedatzea, haurrak komunitateko parte diren subjektu aktiboak izan daitezen bai zerbitzuan –maila guztietan- eta baita auzo eta herri mailan ere, bakoitzak bere interes eta ahalmenen arabera.
- ⇧ Haurrek jarduera berriak ezagutzeko eta parte hartzeko aukera eskaintzea eta baita zaletasunak garatzeko ere.
- ⇧ Haurren informazio eta orientazio beharrei erantzutea.
- ⇧ Gurasoei euren egunerokotasunean haurren heziketarekiko sortzen zaizkien zalantzak argitzen laguntzea.

- ⇧ Haurtzaroari arreta emateko beharrei erantzutea, horretarako definitu diren ekintzen programazioari erantzun globala eta estrategikoa ematea, eta hori faseetan planifikatzea.

5.2. Helburu zehatzak

Helburu nagusiak kontuan hartuta, tokiko errealitatera egokitutako helburuak:

- ⇧ Haurren aisialdiaz era aktiboan, parte hartzailean, sortzailean eta osasungarrian gozatzea.
- ⇧ Haurrentzat esanguratsuak izango diren harreman pertsonalak eraikitzeko gune aproposa eta aukerak eskaintzea, adin berekoekin zein lan taldeko helduekin.
- ⇧ Haur etorkinen eta behar bereziak dituztenen parte hartzea eta inklusioa sustatzea, zerbitzuak erabiltzeko aukera erraztuz.
- ⇧ Aisialdia euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzea eta euskal kultura sustatzea. (Zerbitzu eta eskaintza euskaldunak izatea)
- ⇧ Adin talde berdinekin lan egiten duten herriko eta inguruko eragileekin eta zerbitzuekin sare lana bultzatzea.
- ⇧ Haurrak Oiartzungo herritar aktibo izateko, bertako bizi-ohituretan, jardueretan, txertatzea auzoetako dinamikan inplikatuz.

6. HBAZ ZERBITZUAREN PRESTAZIOARI BURUZ. ZERBITZUA EMATEA

Egin beharreko lana, 5.1. eta 5.2. ataletan azaltzen diren helburuak betetzera bideratuko du esleipendunak, beti ere Oiartzungo Udaleko Gazteriaren Politikaren baitan eta Gazteria eta Kirola Sailaren zuzendaritzapean.

Zerbitzu honen arduradun nagusia Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila da. Oro har, Udalak zehaztutako orientazioak eta arauak beteko ditu enpresa esleipendunak. Orientazio horien xehetasunak atal honetako hurrengo puntuetan garatuta azaltzen dira.

6.1. Zuzeneko arreta

Haur-txokoa, familia-eremua eta udaleku irekietako jarduerak udal- azpiegituren barruan egingo dira, baita eremu irekian ere.

Salbuespen kasuen aurrean – osasun larrialdiak edota bestelako ezohiko egoerei aurre egiteko eta aurrez aurreko arreta eta esku-hartzea ematea ezinezkoa litzatekeen kasuetan-, lizitatzaileak udalari zerbitzua modu telematikoan emateko proposamena luzatuko dio, aurrez aurkezturiko plangintza baten baitan eta beti ere udalaren oniritziarekin. Kasuan kasu, esleipendunak indarrean dauden osasun gomendioak bete beharko ditu eta bere gain hartu eratorritako gastuak.

Zerbitzu hauetan, sei jarduera motak burutuko dira (informazioa, orientazioa...) eta eskaintza zehatza erabiltzaileen behar eta interesguneetatik abiatuko da. Jarduera-proposamen zabala izango du, horietan oinarrituta haurrekin eguneroko aisia-proposamenak adosteko.

Haurren interes eta gogoak azaleratu eta landuko dira zerbitzuan eta beraien parte hartzea bilatuko da zerbitzuko eskaintzaren antolaketa fase ezberdinetan. Haurren adinari, nahi, interes eta beharrei egokitutako programazioak eskainiko dira.

Era berean, zerbitzuaren funtzionamendu egokirako ezarri beharreko bizikidetza arauak erabiltzaileek eta lan taldeak elkarrekin eztabaidatu eta adostuko dituzte.

Antolatutako ekintzez gain, antolatu gabeko uneak ere aurre ikusiko dira, zeintzuetan haurrek modu askean, jolastu, hitz egin edo atseden hartzeko aukera izan dezaten.

Langilearen eta erabiltzailearen arteko harreman hezitzailea ezinbesteko erreminta izango da eskaintza antolatzerakoan. Besteak beste, eskaintzak honako hauek hartuko ditu barne: antolatu gabeko jarduerak, antolatutako jarduerak, proiekzioak, ikuskizunak, irteerak, herriko eta auzoetako ekimenetan parte hartzea (jaiak, txapelketak, errebindikazio egunak, elkarteen egitarauak...) erabiltzaile ez diren haurrei zuzendutako ekintzak, etab.

Era berean, sustapen lana egingo da haurrak herritar aktibo izan daitezen, gizartean jarrera arduratsuak eta kritikoak hartzen hasi daitezen eta lan komunitario bitartez, beraien ingurune hurbileko dinamizatzaile bihur daitezen. Auzoa ezagutu eta bertan integratzeko proiektu bat izango du. Ildo beretik, herri mailako beste elkarte eta ekimenekiko harremana eta elkar ezagutzea sustatuko da.

6.2. Zeharkako arreta

Oiartzungo Haurrentzako Zerbitzua, planifikatutako espazioa, barnean antolatua eta besteekin koordinatua izan behar du. Horrez gain, zerbitzuaren funtsak edo oinarriak ezarri beharko ditu lantaldeak.

6.2.1. Funtsatzea

Oiartzungo haurren beharrak identifikatu eta horiei erantzuteko, hezitzaileek parte hartuko dute, koordinatzaile teknikoarekin batera, zerbitzuaren funtsatzean. Zerbitzuaren ingurunea ezagutu, errealitate berriak nolakoak diren hausnartu eta haurren beharrak eta eskaerak identifikatuko dituzte. Zerbitzuaren gabeziak detektatu eta hobetzeko alderdiak proposatuko dituzte, beharrak identifikatuz.

Haurrez arduratzen diren beste eragileekin zerbitzuaren oinarria partekatuko da eta haurrak tokiko politikaren lehentasunen artean kokatzeko lan egingo da.

6.2.2. Plangintza eta ebaluazioa

Zerbitzuak planifikazio-sistema argi bat behar du. Planifikazioaren bitartez, abiapuntu dituen haurren beharrak eta horien araberako helburuak lortzeari begirako jarduerak, estrategiak eta ekimenak zehaztuko dira. Horretarako, zerbitzuaren aurrekariak hartu beharko dira kontutan: aurreko ebaluazioak, udaleko Gazteria sailak zehaztutako lehentasunak, erabiltzaileen proposamenak eta balioespenak, etab.

Arreta berezia eskainiko zaie jardueren programazioari eta plangintzaren eta erabakiak hartzeko prozesuaren izaera parte hartzaileari. Planifikatu beharko da, beraz, haurren parte hartzea zerbitzu prestazioaren atal ezberdinetan nola sustatu.

Ebaluazioak zerbitzuaren ezinbesteko tresna izan behar du; etengabe garatzen den prozesu gisa ulertuko da. Zerbitzuari eta inguruneari buruz informazioa lortzeko eta prozesatzeko egin den guztia barne hartuko du.

Haurren parte hartzea funtsezkoa izango da zerbitzuaren ebaluazioa egiteko.

6.2.2.1. Haur-Txokoak

Plangintza eta ebaluazioa

Zerbitzuan bi planifikazio mota egingo dira: ikasturtekoa eta, hiru hilekoa. Planifikazioari loturik hileko programazioa eta ikasturteko opor garaietako programazioa jasoko ditu. Plangintza Gazteria teknikariarekin adostu beharko da.

Ebaluazioa txostenetan informazio hau jaso beharko da: datu kuantitatiboak (bertaratzea, sexuaren datu desagregatuak, jardueretako parte hartzea, baliabide materialak…), datu kualitatiboak (haurren asebetetze maila, jarrerak, balioespenak, genero perspektiba…) eta zerbitzuak hobetzeko proposamenak.

Ebaluaziorako momentu ezberdinak aurre ikusiko dira: hiru hilekoa eta ikasturtekoa:

- **Hiru hilean** behin, ebaluazio txostenak aurkeztuko dira udalean, zerbitzuko txosten bat, eta dagozkien balioespenak egin ondoren, hurrengo hiru hilekorako plangintzak zehaztuko dira elkarlanean.

- Ikasturteko txostenak ikasturte bukaeran aurkeztuko dira. Ondorengo informazioa jaso beharko du: Plangintzan oinarritutako deskribapena, balorazioa eta hobetzeko proposamenak. Prozesuko eta emaitzen balorazioa.

Honez gain, zerbitzurako egindako erosketei eta burututako ekintzei dagozkien gastuen eta diru sarreren balantzea aurkeztu beharko du esleipendunak fakturekin batera. Balantze hauek **hilero** aurkeztu beharko dira eta udaleko Gazteria eta Kirola sailak oniritzia eman beharko die.

6.2.2.2. Udalekuak

Plangintza eta ebaluazioa

Udalekuen planifikazioa egingo da. Programazioa, berriz, hamabostaldikoa egingo da. Plangintza Gazteria teknikariarekin adostu beharko da.

Udalekuaren plangintza eta prestakuntza ekainean zehar egingo da:

Bestalde, gutxienez, lan hauek jasoko ditu:

- parte hartzaileen zerrenda eta taldeen proposamena.
- begiraleen hautaketa eta formazioa.
- gurasoekin bilera.
- programazioaren egokitzapena aniztasun funtzionalik izanez gero.
- ebaluazioaren eta asebetetze-galdetegiaren diseinua.

Ebaluazio txostenean informazio hau jaso beharko da: datu kuantitatiboak, datu sexuagatik desagregatuta, genero adierazleak, datu kualitatiboak eta udalekuak hobetzeko proposamenak.

Ebaluaziorako momentu ezberdinak aurre ikusiko dira: hamabostaldikoa eta hilekoa.

Udalekuak amaitzean, ordea, memoria bat aurkeztu behar du udalean honako puntuekin:

- prestaketa, koordinazioa eta funtzionamendua.
- parte hartzaileen zerrenda sexuaren, adinaren eta taldearen arabera bereizia, asistentzia, osatutako taldeak eta horietako bakoitzerako izendatutako begiraleak sexuagatik desagregatuak.
- erabilitako espazioak, egindako bilerak, familiei eta haurrei egindako asebetetze-galdetegiaren emaitzak sexu aldagaia sartuta (galdetegia betetzen duenarena).
- lortutako helburuak eta horien lorpen maila.
- koordinazioaren eta bileren egokitzapena.
- prestaketaren, baliabideen eta jardueren egokitzapena.
- haurren eta begiraleen arteko harremana.
- udalekuak hobetzeko proposamenak.

Gazteria eta Kirola Sailak egingo du zerbitzuaren jarraipena.

6.2.3. Barne-antolaketa

Zerbitzuak barnean antolatutako espazioa izan behar du. Barne-lanerako denbora eta funtzio definituak behar dira elementu horiei erantzuteko: giza baliabideak, baliabide materialak, udalarekiko harremana, entitatearekiko/enpresarekiko harremana, taldearen dinamizazioa eta prestakuntza.

Barne-antolaketaren barruan hartuko dira:

- lantaldearen dinamizaziorako beharrezkoak diren bilerak.
- lantaldeak haur, nerabe eta gazteen sustapeneko teknikariarekin izango duen koordinazio-harremana.

HBAZ zerbitzuko langileak etengabeko prestakuntzako prozesuetan murgilduko dira. Zerbitzuaren eta hezitzaileen beharrak zeintzuk diren zehaztuko da. Beharrak

atzemanda, diseinatuko den prestakuntza-planak zerbitzuaren helburuak lortzen lagunduko du.

Bestalde, Udalak bideratutako lan taldeetan zein lurralde mailan Gaztematikaren baitan sortutakoetan ere (hezitzaileen foroak, lan talde zehatzak…) esku hartzeko konpromisoa hartuko du esleipendunak.

6.2.4. Koordinazio lana

Haurrentzako zerbitzuaren martxa egokirako derrigorrezko eginkizuna da koordinazioa. Haurren beharrei erantzuteko, arlo eta eragile ezberdin askorekin elkarlanean aritu behar da. Udalarekin egingo den gutxieneko koordinazio lana honakoa izango da:

- Hilean behin Zerbitzuaren jarraipen bilerak: bertan Zerbitzuko koordinatzaile teknikoak eta Gazteria eta Kirol teknikariak parte hartu behar dutelarik.
- Hiru hilean behin (Ebaluazio Txostenak entregatu ostean) Zerbitzua ebaluatzeko bilerak: zerbitzuko koordinatzaile eta langileak eta Gazteria ea Kirol teknikaria.

Hori gauzatu ahal izateko, zerbitzuak koordinazio-sistema bat sortuko du, norekin, zertarako, maiztasuna eta edukiak zehaztuz. Udalarekin egin beharreko koordinazioaz gain, beste eragile hauekin ere lan egin beharko da: Gizarte Zerbitzuekin, Hezkuntza sistemarekin eta zerbitzu eta baliabide komunitarioekin (kultura, kirola, parte-hartzekoak, aisialdikoak). Honekin batera, Oinherri Herri Hezitzailea Elkartearen arteko lankidetzarekin jarraituko da, herriko haurren hizkuntza, hezkuntza eta aisia alorrean ekintza zehatz eta parte-hartzaileak abian jartzeko.

Gainera, **HBAZ**k arreta berezia eskainiko dio familiekiko harreman iraunkorrari eta inguruan dituen beste alor batzuetako eragile edo zerbitzuekin saren laguntza eman eta lan egiteari.

6.2.5. Ezagutzaren eta kalitatearen kudeaketa

Lantaldeak parte hartuko du kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat hartzen diren zerbitzuaren prozeduretan eta metodoetan, eta prozedura bihur daitezkeen prozesuak estandarizatuko ditu.

Praktika onak identifikatu eta sistematizatzeko ardura hartuko du; Gaztematikaren barruan praktika onak zabaltzen eta partekatzen ahaleginduko da.

6.3. Zehar lerroak

Oinarri hauetako 3.2. puntuan zehaztutako zeharkako lerroak garatzeko estrategiak abiaraziko dira ikasturte bakoitzean, jarraian azaltzen diren irizpideak kontutan hartuz:

6.3.1.Euskara

Euskara izango da **HBAZ** zerbitzuko hizkuntza, bai laneko hizkuntza moduan (harremanetarako, koordinaziorako, antolatzeko…) eta baita hartzaileei egingo zaien zuzeneko harreran ere. Horretarako, beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: hezitzaile euskaldunak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazio lana… Ekipamendu eta erabiltzaile bakoitzaren hizkuntz errealitatea kontutan hartuta, planak eta estrategiak inplementatuko dira euskararen erabilera sustatzeko, euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko eta euskal kultura ezagutzera emateko.

6.3.2. Berdintasuna

HBAZ zerbitzuan nesken eta mutilen arteko aukera berdintasuna errealitate bilakatzeko etengabeko lana egingo da, besteak beste: neskentzat eta mutilentzat interesgarria den eskaintza egingo da, debateetan eta erabakiak hartu behar direnean nesken presentzia eta parte hartze aktiboa bultzatuko da, espazioa banatzeko orduan, hedapen materialean azalduko diren irudiak aukeratzerakoan, hizkuntza ez sexista erabiltzean…

6.3.3. Inklusioa

Erabiltzaileen aniztasuna kontuan izango da (adina, sexua, jatorria, pentsamendua, gaitasuna, etab.) eta tratu- eta aukera-berdintasuna bermatuko da. Norbanako guztiak barnean sartzea eta elkarri eragitea sustatuko da, elkarrekin bizitzen ikastea eta gozatzea bultzatuz.

Arreta edo erantzuna haurren premien eta gaitasunen arabera ematen ahaleginduko da zerbitzua.

Zerbitzuak arreta berezia eskainiko die premia bereziak dituzten pertsonei (gizartean zailtasunak dituztenak, urritasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoak, jatorriz beste kultura batekoak diren haurrak, jarrera arriskutsuak dituztenak…).

Zehar lerro honen garapenean ondoko hauekiko elkarlana sustatuko da: udaleko Gizarte Zerbitzuak, Berritzegune, ikastetxeak, udaltzaingoa, Oinherri, etab.

7. HBAZ ZERBITZUKO LANTALDEAK

Zerbitzuak era egokian eskaini ahal izateko, esleipendunak dokumentu honetan zehazturik datozen programei erantzuteko lantalde egokia jarriko du. Haurren mundua eta haien beharrei erantzuna emateko modu egokiak ezagutzen dituzten giza baliabideak arituko dira zerbitzuan.

7.1. Giza baliabideak

Zerbitzua era egokian eskaini ahal izateko, lan talde egoki bat jarriko du esleipendunak. Gutxienez, langile hauek arituko dira zerbitzuan:

7.1.1. Ludoteka

Familia-eremua: hezitzaile bat egongo da astelehenero 1,5 ordu, zerbitzuaren jarraipena egiteko. Gazteria eta Kirola Sailarekin batera adostuko da ordutegi zehatza. Hezitzaile hau, haur-txokoko hezitzaile bat (edo biak txandaka) izango da eta izena ematen duten gurasoekin adostu beharko du zerbitzuaren erabilpena.

Urritik maiatza bitartean (biak barne) arituko da.

Haur-txokoa: bi hezitzaile egon beharko dira, asteartetik larunbatera (biak barne), Iraileko azken bi astetik maiatzera (biak barne). Iraileko azken bi asteak, zerbitzuaren irekiera prestatzeko erabiliko da.

- *Asteartetik ostiralera:*
  Arreta zuzena: 12 ordu (3 ordu egunean)
  Barne lanerako: 4 ordu. Banaketa, esleipendunak eta Gazteria eta Kirola Saileko arduradunak adostuko dute ikasturte hasieran.

- *Larunbatean: (Abaraxka ibiltaria)*
  Arreta zuzena: 3 ordu
  Barne lanerako: ordu 1. Banaketa, Esleipendunak eta Gazteria eta Kirola Saileko arduradunak adostuko dute ikasturte hasieran.

- *Gabonetan eta Aste Santuan*:
  Gabonetan, 8 egun eta Aste Santuan beste 8 egunetan jarduerak antolatuko dira. Egun bakoitzean, arreta zuzena 3 orduko izango da.
  Barne lanerako: ordu 1. Banaketa, Esleipendunak eta Gazteria eta Kirola Saileko arduradunak adostuko dute ikasturte hasieran.

Ordu-poltsa bat aurreikusten da, lan-aste bakoitzeko ordu batekoa, formazio, koordinazio eta antzeko zereginetarako erabiliko dena.

Bi begirale kontratatuko dira larunbatetan *(Abaraxka ibiltaria),* Gabonetan eta Aste Santuetan hezitzaileekin batera, jarduera berezi hauek bideratzeko: 3 ordu arreta zuzenerako eta ordu bat barne lanerako.

7.1.2. Udaleku irekiak

Bi koordinatzaile egon beharko dira, hauek Haur-txokoko hezitzaileak izango direlarik.

Ekainean zehar 5 orduko 15 egunetan zehar eta Gazteria eta Kirola Saileko arduradunarekin adostutako egutegi eta ordutegia baitan, udalekuen prestaketa bideratuko da.

Uztailean, 9:00etatik 14:00etara egongo dira begiraleekin batera.

Udalekuetan talde bakoitzak kontratupeko begirale bat izango du, gutxienez. Begirale horien artean, txanda bakoitzerako eta ikastetxe bakoitzeko edota adin-multzo bakoitzeko begirale arduraduna izendatu beharko du enpresa esleipendunak.

Begiraleez gain, begiraleen lana eta ekintza guztiak koordinatzeaz arduratuko den koordinatzaile orokor bat izendatu beharko du esleipendunak.

Udaleku irekiak aurrera eramateko begiraleak kontratatuko dira. Begiraleen kopurua, haurren izen-emate kopuruaren baitan zehaztuko da, beti ere ekainaren 25eko 170/1985 dekretuko 2. artikuluan, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, koloni irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen jaurbidea araupetzen duena, zehazten diren ratioak errespetatuz.

Kontratu honen baitan udalak **40 begiraleen** kontratazioa aurreikusten du. Gehiago beharko balira, begirale hauen kostua udalak hartuko luke beregain. Gutxiago balira, begirale aldearen kostua, esleipendunak udalarekin doitu behar dut aurkeztu beharko duen txosten ekonomikoarekin batera.

Begirale lanetan arituko direnen ordutegia, uztailean zehar, goizeko 9:00etatik 14:00etara izango da. Zaintza lanetan arituko den begiralea, autobus garraioaren arabera zehaztuko da bere ordutegia.

Aurrez zehaztutako egunetan, ikastaro trinko batzuk antolatuko dira begirale guztiak parte hartu beharko dutenak, udalekuetako koordinatzaileek antolatuko dituztelarik. Saio hauek, guztira, gehienez, 6 orduko iraun dezakete.

Laguntza berezia behar duen haurrik balego, talde finkorik gabeko begirale bat kontratatuko da Gazteria eta Kirol zerbitzuko arduradunaren oniritziarekin eta dagokion begirale gastua ordainduko da. Begirale hauek beste begiraleek jasotzen duten antzerako ordainsaria jasoko dute.

7.2. Langileen prestakuntza baldintzak

7.2.1. Ludoteka

Zerbitzuan lan egiten duten **hezitzaileek** ondoko prestakuntza baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Gizarte Hezkuntza Diplomatura / Gradua izan beharko dute edo Heziketaren zein Gizarte Zientzien arloan erdi zein goi mailako beste titulazioa (Gizarte hezkuntza, Gizarte lana, Psikologia, Soziologia eta Magisteritza ikasketak).

  Horrez gain, langile guztiek aisialdian edota haurtzaroan zein gazteriaren alorretan gutxienez urtebeteko esperientzia postu beretan edo antzekotan.

- Euskara: Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila. (3. Hizkuntza eskakizuna EGA titulua edo horien baliokidea.)

Zerbitzuan lan egiten duten **begiraleek** ondoko prestakuntza baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Begirale guztiek aisialdiko begirale edo zuzendari titulua, edota Gizarte eta Hezkuntza arloko erdi edo goi mailako titulua izango dute.

- Euskara: Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila. (3. Hizkuntza eskakizuna EGA titulua edo horien baliokidea.)

Guztiek, haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak ezarritakoa betez, Delitugile sexualen Erregistro Nagusian sartu gabe dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria izatea.

Esleipendunak bermatuko du, sor daitezkeen ordezkapenetan ere, langile berriek titularraren baldintzak beteko dituztela. Hasierako pertsonalean edozein aldaketa egiteko, Udalak oniritzia eman behar du.

7.2.1 Udaleku irekiak

- Begiraleek aisialdiko begirale edo zuzendari titulua, edota Gizarte eta Hezkuntza arloko erdi edo goi mailako titulua izango dute.

Ekainaren 25eko 170/1985 dekretuko 2. artikuluan, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, koloni irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen jaurbidea araupetzen duena, zehazten duen bezala, begiraleen %40a **begirale titulua** izan beharko dute eta koordinatzaile ardurak dituenak denbora libreko zuzendari tituluaren jabe izango da.

- Euskara: Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila (3. Hizkuntza eskakizuna EGA titulua edo horien baliokidea.)

Guztiek, haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak ezarritakoa betez, Delitugile sexualen Erregistro Nagusian sartu gabe dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Honetaz gain, heziketarekin harremanak duten ikasketak izatea, esperientzia edukitzea, aisialdiarekin zerikusia duten espezializazio-ikastaro edo ikasketak dituzten begiraleen kontratazioa lehenetsiko du esleipendunak.

7.3. Eginkizunak

Koordinatzaile teknikoaren funtzioak

Koordinatzaile teknikoak lantaldearen koordinazioaren ardura izango du. Hezitzaileei laguntza teknikoa emango die, eta etengabeko hausnarketa eta segimendua ahalbidetuko ditu, eguneroko lanari ikuspegi berriak emanez. Orientazioa eta bide-laguntza emango die hezitzaileei, beraien lana erraztuz. Honako hauek izango dira bere eginkizun nagusiak:

- Zerbitzuaren funtsatzea eta beharren ebaluazioa bideratu.
- Hezitzaileen hasierako eta etengabeko prestakuntzan lagundu.
- Esku-hartzearen analisi orokorra gidatu.
- Hezitzaile eta begirale taldea dinamizatu.
- Esku-hartzearen jarraipena egin.
- Sareko lan-sistema komunitario batean parte hartzeko iniziatiba eta erantzukizuna agertu.
- Beste eragile batzuekin koordinazio-sistema definitu.
- Hezitzaile-taldearen koordinazioa egin.
- Udaleku irekietan zuzendari lanak egin.
- Zerbitzuaren ardura duen teknikariarekin koordinatuta lan egin.
- Lantaldearen antolaketa ahalbidetu.
- Zerbitzuaren plangintza-sistema finkatu.
- Gaztematikak eskaintzen duen formakuntza saioetan parte hartu.

Hezitzaileen funtzioak

Hezitzaileen funtzioak honako hauek izango dira:

- Oiartzungo haurren errealitatea eta jardueren eragina aztertu.
- Zerbitzuaren funtsatze-fasean parte hartu.
- Haurren beharrak ebaluatzeko prozesuan parte hartu.
- Plangintzaren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartu.
- Haur guztien parte-hartzea sustatu.
- Haurren familiengana hurbildu eta lagundu.
- Haurrez arduratzen diren beste eragileei zerbitzuan parte hartzen lagundu.
- Gizarte eta heziketako esku-hartzea definitu.
- Zerbitzua erabiltzen duten haurrekin heziketa-prozesuak garatu.
- Haurren beharretan eta eskaeretan oinarritutako programazioa garatu.
- Haurrei eguneroko eginbeharretan autonomia garatzen lagundu.
- Zerbitzuaren presentzia beste espazioetan (kalea, lokalak…) garatu.
- Komunitatean parte hartu eta eragile izan haurren protagonismoa bermatzeko.
- Zerbitzuaren komunikazio-beharretan eta zabalkundean lagundu.
- Harreman ludikoa garatu, baliabide eta jarduera desberdinetan loturak sortuz.
- Haurrez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin koordinatu.
- Lantaldearen dinamizazioaren barruan, zerbitzuaren garapen teknikoan eta antolakuntzan parte hartu.
- Zerbitzuaren jarraipena egiteko sortzen diren organoetan parte hartu.
- Materialak lortzea, erosketak kudeatzea.
- Gaztematikak eskaintzen duen formakuntza saioetan parte hartu.

Begiraleen funtzioak

Begiraleen funtzioak honako hauek izango dira:

- Hezitzaileek planifikatutako guztia gauzatzeko beharrezkoa den lanketa egitea.
- Zuzeneko arretaren barnean haurrei harrera egin eta arreta eskaintzeaz arduratuko dira. Gainera, besteak beste, espazioak ireki eta itxi beharko dituzte, txukuntasuna mantendu beharko dute eta funtzionamendu-arauak betearazi beharko dituzte.
- Erabiltzaileak dinamizatu eta lotura afektibo eta konfiantzazkoak bideratuko dituzte, eta haien gurasoekin gertuko harremana mantenduko dute.

Esleipenduna behartuta dago Lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun, higiene eta arriskuen prebentzioaren arloan indarren dauden legezko xedapenak betetzera. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Kontratuak irauten duen bitartean, aldaketaren bat baldin badago, erretiroa dela, heriotza dela, guraso baimen baja dela enpresan, kaleratzea dela, elbarritasun iraunkorra dela… edo zerbitzuaren beharrengatik aldaketaren bat ematen den guztietan, eskatutako profila betetzen duen bere ordezkoa jarri beharko du esleipendunak.

7.2. Udalarekin harremanetarako arduraduna

Enpresa esleipendunak Udalarekin harremanak izateko eta behar den informazioa emateko arduradun bat izendatuko du. Enpresako arduradun honek, bai gai teknikoei eta baita gai administratiboei irtenbidea aurkitzeko ahalmena izango du. Enpresak izendatutako arduradunak enpresak adierazitako komunikazio sistemaren bidez uneoro erraz aurkitzeko moduan egon beharko du.

7.3. Kontratatutako langileen agirien aurkezpena

Kontratua gauzatzen hasi aurretik, enpresa esleipendunak, zerbitzuan lanean ariko diren langileen ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu:

- Gizarte Segurantzan alta emana izatea egiaztatzen duen agiria.
- Lan kontratuaren kopia.
- Eskatu diren beharrezko prestakuntza betetzen dutenaren agiria (titulazioa, eskarmentua, hizkuntza gaitasuna, sexu delituen erregistro zentralean ziurtagiri negatiboa).

8. AZPIEGITURAK ETA BITARTEKO MATERIALAK

8.1. Azpiegiturak

1) Familia-eremua eta Haur-txokoa:

Udalak Fermiñene eraikuntzan duen lokala eta oinarrizko ekipamendua jarriko du (lokalaren eta bulegoaren altzariak eta oinarrizko materiala). Argindarra, ura, telefonoa eta ludotekako bulegoan dagoen sareko hartunean Interneteko konexioa udalaren kontura izango dira. Eraikinean Wifi seinalea jarriko du Internetera konektatzeko. Ordenagailuak, inprimagailua eta zerbitzua emateko beharrezkoak diren bestelako informatika baliabideak esleipendunak berak jarri beharko ditu. Oinarrizko garbiketaz ere arduratuko da.

Ikusentzunezko baliabideei dagokioenez, Oiartzungo Udalak proiektorea eta soinu ekipoa jarriko ditu. Esleipena hastean udalak baliabidea hauen funtzionamendu zuzena bermatuko du baina mantentzea esleipendunak egingo du esleipenak irauten duen bitartean.

Bulego materialaren horniketaz eta lokala eta ekipamenduaren erabilera zuzenaz esleipenduna arduratuko da. Lokala eta bulegoa txukun mantentzearen ardura esleipendunarena ere izango da. Baita ere bestelako erabileragatik sortu daitezkeen gastu, tasa eta gainerako zergak.

Larunbatean haur-txokoa jarduerak bideratzeko, auzoetako zenbait azpiegiturak erabiltzerik izango dira (auzo elkarteen lokalak, pilotalekuak…).

2) <u>Udaleku irekiak:</u>

Herrian zehar eta herriko instalazio ezberdinetan izango dira udalekuak eta hauen erabilera, udalak aurrez ikastetxeekin eta udal instalazioen arduradunekin adostuko du. Udala hauen kostuaz arduratuko da.

Udalekuetan, beharko den material eta ekintzetarako gastuak esleipendunaren kontura izango dira: mahai jolasak, jostailuak, jokoak, tailerretan erabiltzeko materiala, sarrerak, jarduera bereziak, etab.

Udalekuetan zehar beharko diren autobus garraioak ere bideratu beharko ditu esleipendunak: irteerak egiten badira beharko den garraio zerbitzua eta egunero, herriko haurrak auzoetatik, herrigunera gerturatu eta bueltatzeko bi autobusen kostua ere.

Erabilitako instalazioak eta oinarrizko ekipamendua egoera onean mantenu beharko dira eta ondo zaintzeko bitartekoak erabili. Kalterik gertatzen bada, esleipendunaren kontura izango dira kostuak.

8.2. <u>Bitarteko materialak</u>

Zerbitzuko ekintzak burutzeko eta behar den materiala erosteko urteko diru kopuru bat zehaztuko da lizitazio prezioaren barruan. Zenbateko hori finkoa izango da eta ezin izango da behera hobetu. Kopuru hori derrigor erabili beharko du esleipendunak ekintzetan edota material erosketan, eta 6.2.2.1 puntuan azaldu bezala, gastu horiei dagozkien zuriketa eta ordainagiriak hilero aurkeztu beharko dizkio Udalari, diru sarreren balantzearekin batera. Arrazoiren batengatik ekintzentzako eta materiala erosteko zehaztuta zegoen kopuru osoa urtearen barruan erabiliko ez balitz, erabili gabeko diru

kopurua (zehaztutako kopurua ken erabilitakoa) Udalari itzuli beharko dio lizitatzaileak, zuriketa aurkeztearekin batera.

9. ZERBITZUKO EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

9.1. Familia-eremua:

Urritik maiatzera (biak barne) eta ekaineko lehen astea, herriko eskolen egutegien opor egunak mantenduz. Astelehenetan, 16:30etatik 19:30etara irekiko da zerbitzua. Izena eman duten gurasoekin adostuko da irekiera eta itxiera nola bideratu.

9.2. Haur-txokoa:

Urritik maiatzera (biak barne). Asteartetik ostiralera eta 16:30etatik 19:30etara eta larunbatetan 16:30-19:00etara. Lan-egutegiaren zehaztapen guztiak Gazteria eta Kirola sailarekin adostuko dira ikasturtearen hasieran herriko eskoletako egutegiak kontuan izanda.

Haur-txokoa, Gabonetan eta Aste Santuko oporretan eskaintza berezia eskainiko da. 8 egun gabonetan eta beste 8 egun Aste Santuetako haurren oporraldietan, egunero hiru orduko jarduerak antolatuz.

9.3. Udaleku irekiak:

Haurrentzako, uztailean, astelehenetik ostiralera, jai egunak ezik eta 9:30etatik 13:30etara izango dira.

Dena den, ordutegi hauek, zerbitzuaren eskaera eta beharren arabera, aldaketak izan ditzakete Oiartzungo Udaleko Gazteria eta Kirola Sailak hala eskatuz gero. Nolanahi ere, zehaztutako ordu kopuruak beti errespetatuz.

10. BETEBEHAR TEKNIKOAK

10.1. Euskara

a) Hizkuntza-gaitasuna:

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez.

Kontratuak herritarrekin ahozko zein idatzizko harremana izatea eskatzen duenean, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila izatea hobetsiko da.
Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta

geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

b) Hizkuntza-paisaia:

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak irudi ez sexisten bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

c) Herritarrekiko erabilera:

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari galdatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan…) euskaraz egingo da. Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak…) euskaraz egingo dira.

Herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

d) Administrazioarekiko erabilera:

Kontratu egileak aukera izango du kontratu mota honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz eskatzeko esleipendunari.

10.2. Generoen arteko berdintasuna

HBAZ zerbitzuan nesken eta mutilen arteko aukera berdintasuna errealitate bilakatzeko etengabeko lana egingo da, metodologia hezkidetzailea erabiliz, besteak beste: neskentzat eta mutilentzat interesgarria den eskaintza egingo da, debateetan eta erabakiak hartu behar direnean nesken presentzia eta parte hartze aktiboa bultzatuko da, espazioa banatzeko orduan, hedapen materialean azalduko diren irudiak aukeratzerakoan, hizkuntza ez sexista erabiltzean…

11. ZERBITZUAREN KOMUNIKAZIOA

Zerbitzuaren zabalkundeaz eta komunikazio-ekintzez esleipenduna arduratuko da, Gazteria eta Kirol sailarekin adostuta.

Zerbitzuaren inguruko informazioa eskainiko zaie hartzaileei, eragileei eta herritarrei. Horrez gain, zerbitzuaren erabilera sustatuko da.

Zerbitzuaren inguruko informazio orokorra (helburuak, lan ildoak…) zein zehatza (egitarauak, jarduerak, ordutegiak…) eskainiko zaie hartzaileei, eragileei eta herritar orori, aldez aurretik esleipendunak eta udalak adostutako zabalkunde plan bati jarraiki. Plan horretan zehaztuko dituzte zein informazio zabaldu noiz (ikasturte hasieran, opor garaian, data zehatzetan…), zein helbururekin (erabilera sustatzea, egitarauen berri ematea…) eta zein bide erabili (komunikabideak, esku orriak…).

Komunikazio zabalkunderako euskarria (bloga edo web orria) esleipendunak jarriko du eta bera arduratuko da elikatzeaz, eguneratzeaz eta mantentzeaz.

12. ZERBITZUKO TARIFAK

HBAZko zerbitzu desberdinen tarifak Oiartzungo Udalak zehaztuko ditu. Esleipenduna izen-emateaz arduratuko da eta zerbitzu bakoitzeko kuotak jaso ondoren, txosten ekonomiko batekin, tarifen zenbatekoaren diru-transferentzia bideratuko dio udalari.

13. INBENTARIOA

Oiartzungo Udalak I. eranskinean jasotzen den ekipamendua utziko du esleipendunaren eskuetan.

Zerbitzu prestazioarekin hasi baino lehen, esleipendunak ikuskatu ahal izango du instalazioa eta ekipamendua, haien egoerarekin eta haiek bete beharreko helbururako

egokitasunarekin adostasuna espreski adierazi beharko duelarik, hauteman ditzakeen gabezia guztiak azaldu ahal izango dituelarik, horrela, instalazioa eta ekipamenduak zerbitzuan jarri aurretik, gabezia horien erantzuleek behar diren zuzenketak egin ditzaten.

Instalazio, altzari eta ekipamenduen funtzionamendu eta mantentze lan txukun eta egokiaren erantzule bakarra esleipenduna izango da.

Esleipendunak, kontratua irauten duen bitartean, inbentarioa eguneratua eduki beharko du; zainketaz arduratuko da eta Udalari jakinaraziko dio edozein desagertzea eta hondatzea gertatuz gero.

Udalerriko beste eragileek zerbitzuko materiala behar izan ezkero, haren eskura utziko du, betiere, kontrolpean izanda.

Hasieran dauden ondare guztiak eta esleipendunak instalakuntzei gehitu diezazkiokeenak Oiartzungo Udalaren esku geratuko dira kontratua amaitzen denean, betiere egoera onean eta funtzionatzeko moduan.

14. IKUSKAPENA

Udalak **HBAZ** zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak ikuska ditzake, esleipendunaren betebeharrak egiaztatzeko. Esleipendunaren baldintza teknikoak betetzen diren edo ez ikuskatu ahal izango du. Administrazioak zerbitzuak kanpotik ikuskatzearekin batera, esleipendunak zerbitzuak etengabe ikuskatu behar ditu barrutik.

Oiartzunen, sinaduraren egunean

Digitalki sinatua:
ION TREKU LARRAÑAGA
2021/05/31, 10:20:05
Gazteria eta Kirol teknikaria